

KULTURARTEKOTASUN ERALDATZAILEA

IKASTETXEETAN KULTURARTEKO ELKARTASUNA, ELKARBIZITZA ETA DUINTASUNA SUSTATZEKO PROPOSAMENA


HELBURUA

PERTZEPZIOAK PARTEKATU
ELKARREKIN HAUSNARTU
KONTZIENTZIA PIZTU



Gure auzo eta lurraldean ematen diren bizi egoera anitzengana hurbildu, ezagutu, ulertu eta horren inguruan elkarrekin hausnartu eta ikasi, kulturartekotasunaren ikuspuntu kritiko, eraldatzaile eta ekintzailea sustatzeko. Horretarako, lurraldean kulturartekotasuna eta elkarbizitza duina sustatzen duten elkarteekin batera, gure gizarteak dituen erronkak eta alternatibak landuko ditugu.

JARDUERAK



AURREIRITZIAK
DESERAIKI,
HERRI ANITZA
ETA LAGUNKOIA
ERAIKI !!!



Zer dakigu etorkinen inguruan?

Gaur egungo etorkinen egoeraz mintzatuko gara, bakoitzak dakiena partekatuz, elkarren artean gure ulertzeko moduei erreparatuz eta gure kale edota landetan dagoen aniztasun eta bizi egoeren inguruko informazioa batuz.

Zer dakigu desberdintasunen inguruan?

Hautematzen dugun horren atzean, historia, legeak, kultura, hedabideak eta beste hainbat elementu daude, gure sistema osatzen dutenak. Honen baitan, desberdintasunak nola eraiki diren ezagutuko dugu, ideiak ulertuz eta ordenatuz.

LOTURAK



Ulertzeko modurik boteretsuena **norberaren hausnarketatik eta elkar entzute**tik datorrela sinezten dugu. Horregatik, **galderen bidez** gidatuko dugu saioa, erantzunak elkar josiz eta **erronkei modu parte hartzailean aurre eginez**. Ideia hauek mural batean marraztuko dugun zuhaitz batean idatziko ditugu, kontzeptuak aztertu eta bertan kokatuko ditugu, **arteak ulermenean lagundu** dezan eta ikastetxean zintzilikatuta geratu dadin, espazioa kontzientziaz apaintzeko. Saiotetan, **eragileetako kideak etortzeko aukera** eskeini dezakegu, betiere posiblea bada, lehen pertsonatik ezagutzak partekatzeko eta hausnarketan laguntzeko.

METODOLOGIA

PROPOSAMENA

Luzapena: **3 orduko saioa**, batuta edo egun desberdinetan, elkarren artean urbil egonda.

Materiala: Orriak, errotulkiak, paperezko zelaia, papelografo handia, proiektorea, internetera konekzioa eta soinua.

ERAGILEAK



LAGUNTZAILEAK

